Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Oion

Aurkibidea

Udalerria: Oion

Sarrera



Arabako hego-ekialdean kokatuta dago, Arabako Errioxa kuadrilla edo eskualdean, Gasteiztik 58 kilometrora ingurura. 1633an Guardiatik banandu zen, Felipe IV.aren eskutik hiribildu titulua jasota.

Oionek ikastola dauka 1978tik, "San Bizente" izenekoa. Helduentzat IKAren euskaltegia ere bada.

Argazkia: Wikimedia, *Zarateman*

- **Biztanleak**: 3.427
- **Euskaldunak**: %23,2

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **37**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **37**

Proiektuak

- Gazte gara gazte
- Periferiaren mugak

Hizlariak



Edurne Azkarate Sobrino (1993)

1993ko apirilaren 29an jaio zen Gasteizen, baina Oionen bizi izan da beti; antzerki ikasketak egiten ari zen elkarrizketa egin genionean, eta laugarren urtea zeraman Valladoliden. Oiongoa du aita eta Gasteizkoa ama. Alaba bakarra da. Bertsozalea da, bertso-udalekuetan ibilia; haurra zela lehenik, eta begirale gero. Antzerkia, bertsolaritza, euskara, hizkuntzak, koadrila, lagunak eta beste hainbat kontu ditu Edurnek mintzagai.

Andoni Landa Arozena (1966)



Andoni jaiotzez Azpeitikoa den arren, urteak daramatza Oionen bizitzen. IKAko irakaslea
da eta Arabar Errioxan ez ezik, Logroñon (Errioxa) ere ematen ditu euskara klaseak.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Iritziak

1.1. Bertso-afariak

- **Hizlaria(k)**: Azkarate Sobrino, Edurne
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: OIO-001/007
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:19:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Bertso afari perfektuaren deskribapena.

Transkripzioa
- Zein izango litzateke, non eta nola bertso-afari perfektua zuretzako? Edo perfektuetako bat antolatzeko aukera emango balizute. Zein izango litzateke planteamentua?
- Non? Niregatik perfektua izateko baserriren batean edo sagardotegiren batean, holan berdez inguratutako leku batean. Ez nuke hiri zentro batean ingo. Eta eingo nuke, nola? Bertso-afariak ematen duen aukera bat da, adibidez, nahasketa hori bertsolari- bertso zaleen arteko nahasketa hori. Ta hori nahiko gustatze zait. Gustatze zait holan distantziaz ikusi behar baldin badut, gustatze zait ikustea bertsolariak oholtza baten barruan, osea, gaiñean, edo hola. Baño gustatze zait' e bai, bata bestian ondon eotea, mahai baten inguruan. Ta kantatu behar dunak kantatzeko edo nahi dunak kantatzeko. Hori're gustatze zait ze iruditzen zait holan elkarren aurpegiak ikusten dituzu ta, gertu-gertu sentitzen zea, elkarrekin afaldu duzue janari berdiña ta, nik hola ingo nuke.
- Ze izango lirateke libre edo gaia jarrita?
- Librean ze librean badao aukera oraindik gaia jartzeko; gaiak ateratzen dira baiño beti zozer gertatzen baldin bada, zoze okurritzen baldin bada ,zoze, beti dao denbora esateko: "a ta gero hau" baiño gaia jarrita igual, depende nolako gaiak edo zelako ariketak baiño holan, lehelengo hau gero bestia ta gero zortziko haundia ta eztaki zer... Holan ez nuke eingo.
- Gehiegi egituratu gabe aurrez?
- Bai.
- Eta, bertsolariak falta zaizkigu.
- Ez dakit, depende, bertsolari bakoitzak badauka bere bertsokera eta, depende. Bertsolariak jarriko du pixka bat giroa, afariari jarriko dio giroa. Depende ze bertsolari den eta giroak ere eskatuko luke bertsolari bat edo beste, depende zer nahi duzun egin eskatuko nuke bata edo beste edo holan, edozein etorriko balitz, aldatuko luke giroa. Depende ze bertsolari dan. Orduan, ez dakit.

- Alegia, ez duzula busti nahi.
- Bai. Ez, ez dudalako busti nahi. Ez dudalako uste holan kriterio haundirik daukadan ze ez dut hainbeste ezagutzen, ez dauzkat hain buruan, hain analizatuak. Honek holan iten du, honek, ez dakit zer... Ta ez dauzkat holan hierarkian jarrita zein behar dut ondo, konbinatu bestearekin.
- Ya eta ardura hori pixkat aparte utzita zuri gustatuko litzaizkizukenak? Lagun dituzulako, ezagutzen dituzulako?
- Ba aurten nik ez neukan holan oso fitxatuta eta negu udalekutara etorri zaigu Agin Laburu. Eta kriston ondo pasatu nun berarekin, baiño oso ondo. Etorri ziren Agin eta Onintza Enbeita eta oso ondo pasatu genun beraiekin, oso saltxeroak izan zian gurekin. Adibidez, hoiekin gustura egongo nintzake baiño eztakit.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aurkezpena (OIO-001/002)

Edurne Azkarate Sobrino 1993ko apirilaren 29an jaio zen Gasteizen. Valladoliden ikasten du eta han batzuetan "Edi edo Edu" deitzen zuten. Arte dramatikoa ikasten ari da. Zaletasunei dagokionez, antzerkia ikustea gustatzen zaio baita bertsolaritza ere. Bertsotarako zaletasuna amarengatik datorkiola uste du. Txikitan bertso-udalekuetara joaten zen eta gustoko zuen bertako giroa.

2. Bertsotarako zaletasuna (OIO-001/003)

Edurneri amarengatik datorkio bertso zaletasuna eta honi bere amarengatik datorkiola uste du. Txikitatik entzun izan ditu bertsoak etxean, baita euskal kantu zaharrak ere. Abestiak dakartza gogora.

3. Bertso-udalekuak I (OIO-001/004)

Hamaika urte zituela lehen aldiz bertso udalekuetara joan eta zuberera lehen aldiz entzun zuela kontatzen du. Egun begiralea da bertso-udalekutan. Bertso udalekuek egun sona handia dute.

4. Bertso-udalekuak II (OIO-001/005)

Bertso udalekuen iraupena ez da oso luzea izaten, aste bete edo hamar egun irauten dute gehienez. Edurnerentzat bereziak dira, Euskal Herriko txoko guztitako jendea ezagutu baitzuen bertan eta oraingo haurrek ere aukera hori dutela uste baitu.

5. Bertsolaritza I (OIO-001/006)

Bertsolaritzak bi aurpegi ditu, bere alderdi makroarekin eta mikroarekin lotutakoak. Edurnek bi aurpegiak beharrezkoak direla uste du. Alderdi makroak hedapena ematen baitio eta besteak berriz zaintza sare bat ahalbidetzen du.

6. Bertso zaletasunarekiko jatorria (OIO-001/009)

Bertso zaletasuna barru-barrutik bizi du eta kanpoan bizi denez, bere Valladolideko lagunekin ere elkarbanatzen du. Antzerkian ikasten duenez gaztelaniazko errimak ere ikasi behar izan ditu eta haietan ere arreta handia jartzen du. Bere bertsotarako zaletasuna, bere zenbait lagun espainiarrek ulertzen dutela dio.

7. Errioxako lagunak eta euskara I (OIO-001/011)

Oioneko lagun taldean ez dira asko eta bere kuadrilakoak Logroñokoak dira. Ingurua desberdinetara egokitzeko, beregan zerbait aldatu behar duela esaten du eta batzuetan apur bat kostatzen zaio. Hala ere, bere lagun errioxarrek euskaraz hitz egiteko saiakerak egiten dituzte, umore pixka bat jartzeko asmoz.

8. Errioxako lagunak eta euskara II (OIO-001/012)

Errioxako lagunek euskaraz egiten dute, berarekiko gertutasuna erakusteko. Edurne atzerritar sentitzen da Donostian egon edo Valladoliden, berak bi aurpegi ditu. Batzutan zailtasunak ditu sentitzen duen hori beste hizkuntza batean adierazteko eta dagoen tokian sintonian sentitzeko.

9. Mugaldeko euskaldun izatea I (OIO-001/013)

Edurne euskalduna sentitzen da, baina mugaldekoa denez ez luke bere burua euskaldun tipiko gisa ikusiko. Sarri euskalduna izatea neketsua dela dio.

10. Mugaldeko euskaldun izatea II (OIO-001/015)

Nerabezaroan euskaldun sentitzeko behar edo modu hori astuna iruditzen zitzaion. Oionen euskaraz egiten den arren, jendeari asko kostatzen zaio. Ingelesarekin alderatzen du berak herrian euskararekiko izan duen harremana. Alegia, lotsa ematen zion euskaraz ongi hitz egiteak. Hala ere, oiondar bat Azpeitira joanez gero euskaraz ahal bezain ondoen jardungo zuela uste du.

11. Euskararen egoera mugaldeko herrietan I (OIO-001/016)

Oionen ez da erraza kalean euskaraz egitea. Euskara batua ez da horren etxekoa, baina euskalkiak eman dezakeen goxotasuna eman dezakeela uste du. Horretarako, ordea, baldintza batzuk behar dira. Hitz egiteko ohitura falta da Oion bezalako zonaldetan euskarak duen arazo nagusia.

12. Euskararen egoera mugaldeko herrietan II (OIO-001/017)

Edurneren ustez euskaraz ez hittz egitearen arazoa eukara batuaren formaltasuna da. Egoera hipotetiko batean euskara herritarren aisialdian sartuko balitz nerabezaroan euskal hiztunen egoera aldatuko litzakeela uste du.

13. Euskararen egoera mugaldeko herrietan III (OIO-001/018)

Euskaraz egitea hautu pertsonala dela uste du eta hezkuntzan aisialdi ereduan euskaraz egiten lagunduko balitz, hautu hori aldatzea posible litzatekela uste du. Gainera, bere herrian oiondar batzuk euskaraz bizitzeko apustua egiten dutela dio. Euskara bultzatzeko ereduak behar direla uste du.

14. Euskaraz hitz egiten duten pertsona eredugarrien eragina (OIO-001/019)

Erreferenteak diren pertsonek (edo pertsona ospetsuek) euskaraz hitz egiteak euskaraz egitera bultzatu dezakeen arren, euskaraz egiteko hautua norberarengan dagoela azpimarratzen du.

15. Irakaslek euskararen erreferente I (OIO-002/001)

Oion inguruan euskara irakasleak erreferenteak dira eta norbaitek euskaraz hitz egin nahi badu haiengana jotzen du.

16. Irakasleak euskararen erreferente II (OIO-002/002)

Edurneren ama irakaslea da eta, ondorioz, kalean topatuz gero oiondarrek berarekin euskaraz egiten dute.

17. Euskararen aldeko ekintzak Oionen (OIO-002/004)

Oionen euskarren alde ekintzaren bat badago Edurne bertan egoten da. Izan ere, euskararen alde egiteko ardura bere baitan sustraitua du. Bertso-poteak ekintza horien adibide dira.

18. Bertsolaritza Araban (OIO-002/005)

Arabako bertso-eskolen topagunea Gasteiz da. Araban bertsoarekiko dagoen lotura desberdina da beste lurraldeekiko. Bertsolaritzaren inguruan jende gutxiago dago eta horrek elkarren artean batuta egotea ahalbidetzen du.

19. Parrandarako eredu desberdinak I (OIO-002/006)

Parranda euskaldunen artean egin edo errioxarrekin egin desberdina da. Euskaldunak kalekoak direla azpimarratzen du Edurnek. Hemen kalean musika egotea ohikoa da, baina Valladolid edo Errioxan ez du halakorik ikusten.

20. Botea (OIO-002/008)

Botea euskaldunak elkarbanatzeko dugun ohituraren adierazle bat da. Nortasuna ematen duen ezaugarri bat da.

21. Arte dramatikoa ikastea eta egitea I (OIO-002/009)

Arte dramatikoa ikastearen prozesua nolakoa izan den kontatzen du. Arte dramatiko ikastea anitza da eta gertaera fiktizioei bizitza ematea da berari gehien gustatzen zaiona. Ikuskizuna lekuaren arabera moldatu egiten da.

22. Arte dramatikoa ikastea eta egitea II (OIO-002/010)

Antzezten ikasteko errazagoa da formatu txikitik ikasten hastea eta gero, handietan moldatzea. Nahiz eta formatu handiko antzezlanak ezagunagoak zaizkigun. Oinarria formatu txikian dagoela uste du. Valladolidera joan aurretik antzerkia egina zen, baina amateur gisa.

23. Antzerkia ikasteko bi adar (OIO-002/012)

Valladolideko eskolan, antzerkian ikasitakoa praktikan jarri behar da oholtzaren gainean. Ikasketa prozesuan bi adar desberdintzen dira; zuzendaritza eta interpretazioa. Praktikan zein eskolan zuzendari on bat edo aktore on bat zer den erraz ikasten da.

24. Antzerkigintza eta bertsolaritza (OIO-002/013)

Bertsolaritzaren eta antzerkiaren arteko harremana, aktore-zuzendari artean kokatu daiteke. Hau da, bertsolaria zuzendaria edo aktorea izatean. Edurneren ustez, bertsolaria bapateko zuzendaria litzateke eta bertso eskolan ikasiko luke bapatekotasun hori lantzen.

25. Antzerkia egitetik ikasitakoa (OIO-002/014)

Antzerkia egitean bapatekotasuna, unekoa eta orainaldi zer den ikasi du. Antzerkiak momentuaren magia gozatzen erakutsi dio eta hori nondik etorri den identifikatzen. Klasean horrelako momentu asko bizi izan ditu.

26. Antzerkia nork bere burua ezagutzeko tresna (OIO-002/015)

Antzerkia egiten duena zein ikusten duenak, badaki hitzekin esaten ez de hori ulertzen. Hitza ez den komunikatzeko modu bat dago. Hitza ez den komunikatzeko modu hori hezkuntzan sartzea ez legoke gaizki. Antzerkiak eguneroko bizitzan nork bere burua ezagutzen laguntzeko balio du.

27. Antzerkia etikarako tresna (OIO-002/016)

Antzerkiak bizitzan etikoa den horren zergatia ulertzen lagundu dezake. Pertsonen baitan dagoen hori ulertzeko balio du.

28. Edurneren nahiak aurrera begira (OIO-002/018)

Valladolideko antzerki eskolatik antzerki konpainia asko sortu dira. Eskola ireki zenean sortu ziren eta egun, ikasle berriek jada sortuta dauden talde horietan sartzeko aukera dute. Etorkizunera begira, antzerki ikastaroak eman nahiko lituzteke.

29. Antzerkian landu beharreko arloak (OIO-002/019)

Aktore gisa Edurnek ez daki zein arlotan kokatzen den eta hainbeste aritu ez den horretan sakondu nahi du. Hau da, antzerkiko arlo anitzetan trebatu nahi du. Antzerkia etengabeko ikaskuntza prozesu gisa ulertzen du eta bera hasieran dagoela esango luke. Komedia arte dramatikoko arlo zailenetako bat dela uste du.

30. Drama eta komedia (OIO-002/020)

Komedia eta dramaren arteko aldea, barne-kanpo harreman bat da. Komedia egitean antzezlea publikora kanpora begira, erreakzio baten zain eta erortzeko zorian.

31. Jendarteak aktore batengatik espero duena (OIO-002/022)

Aktore batengatik espero denaren inguruan dihardu. Egunerko bizitzan ez du antzerkirik egiten, unean uneko datorren moduan bizitzen du.

32. Euskararen transmisioa, ezagutza eta erabilera Oionen (OIO-003/003)

Euskararen inguruko transmisioaz, ezagutzaz eta erabileraz hitz egiten du, Oioni dagokionez.

33. Pertsona bat, motibazio bat (OIO-003/005)

Zein da Oionen euskaltegira joaten den jendearen perfila?

34. Euskara eta eskolaren arteko harremana (OIO-003/006)

Euskara askotan eskolarekin zuzenean lotzen den zerbait izanik, zer harreman dute Oiongo biztanleek euskararekin?

35. Periferian egotearen inguruko sentipenak (OIO-003/008)

Periferian egotearen inguruan duen sentipenaz hitz egiten du.

36. Euskararen etorkizuna Oionen (OIO-003/009)

Oionen euskararen etorkizuna nola ikusten duen aipatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-10-22

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com